Mondragon Unibertsitatea

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea

KODE ETIKOA

HUHEZI Koop. E.

Kontseilu Errektoreak 2022ko uztailaren 13an onartua.

AURKIBIDEA

I. Xedea

Kode etikoaren xedea honako hau da: HUHEZI Kooperatiba Elkarteko langileek eguneroko lanean bete behar dituzten jokabide-arauak ezartzea. Arau horiek honako interes-taldeei lotuta ulertu behar dira:

- Erakundeko pertsonen arteko harremanak (langileak zein ikasleak)
- Pertsona horien eta hornitzaileen, kanpo-kolaboratzaileen, erakunde pribatu eta/edo publikoen, eta oro har gizartearen arteko jarduketak

II. Aplikazio-eremua

HUHEZI Kooperatiba Elkarteko langileak, edozein erantzukizun, postu, kontratu mota (lan-harremana edo sozietate-harremana) eta campusetakoak.

Aurrerantzean, «HUHEZI» izendatuko ditugu inplikatutako pertsona guztiak.

Bestalde, ahalegina egingo da HUHEZIrekin lan egiten duten kolaboratzaile aditu, aholkulari eta hornitzaileek ere bere egin ditzaten kode etikoaren printzipio eta edukiak.

III. Printzipio etikoak

1. Jokabide-arau orokorrak

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko balioetan ardazturiko prestakuntza eta ikerketa-transferentzia kolaboratiboaren bidez gizartea eraldatzea xede dugun pertsona talde kohesionatu eta konprometituak gara, eta balio hauetan oinarritzen da gure misioa:

01. PASIOA. Profesioarekiko inplikazioa, konpromisoa eta proiektu konpartituarekiko atxikimendua ditugu.

02. GERTUTASUNA. Konfiantzazko elkarrekintza sustatzen dugu gure onena eskainiz.

03. BERRIKUNTZA. Erronkei proaktiboki eta begirada kritiko batetik ekiten diegu, eta aurre hartzen diegu modu dinamiko eta malguan.

04. PERTSONA ARDATZ. Garapen osorako kultura sustatzen dugu elkarrengandik etengabe ikasi eta humanismoa ardatz hartuta.

05. (INTER)KOOPERAZIOA. Erantzukidetasunez eta lankidetzan jarduten dugu gure artean eta kanpoko eragileekin.

06. JUSTIZIA ETA JASANGARRITASUN EKOLOGIKOA bultzatzen dugu.

Balio horietan oinarrituta garatzen ditugu gure aktibitate guztiak: gradu eta graduondokoak, ikerketa, transferentzia, eta profesionalentzako prestakuntza.

2. Lege- eta araudi-esparruko jokabidea

Jarduera profesionalak garatzean, erakundean eta haren jardueran aplikaturiko lege, araudi eta barne-arauak bete behar dituzte HUHEZIko pertsona guztiek. Zalantzarik izanez gero, aholkularitza eskatu behar dute dagozkion gaietan espezializaturiko sailetan, erakundearen barruan.

Konpromiso hori da, hain zuzen, erakundeko pertsona guztiengandik espero den jokabide etikoaren oinarria.

3. Lan-harremanak

HUHEZIk lanerako giro segurua ziurtatu behar die langileei, haien segurtasuna eta osasun fisiko eta psikologikoa kaltetzeko arriskurik gabe. HUHEZIk badu Lan Harremanen Prebentziorako Plan bat, osasunarekin eta segurtasunarekin duen konpromisoa betetzeko. Ildo berean, HUHEZIk badu Gatazkaren eta jazarpenaren aurrean jarduteko politika bat.

Bestalde, HUHEZIk lanerako, sustapenerako eta garapenerako aukera-berdintasuna bermatuko du erakundeko kide guztien artean, haien lan- edo sozietate-harremana, edo generoa, jatorria eta erlijioa gorabehera.

4. Erakundearekiko leialtasuna – Interes-gatazka

Erakundearekiko leialtasuna erakundearen misioarekin, interes orokorrekin eta irudia zaintzearekin modu koherente batean jokatzean datza. Interes-gatazkatzat hartzen da langile baten interes pertsonalek eta erakundearen interes orokorrek talka egitea.

HUHEZIren eta haren langileen arteko harremana interes komun batzuetatik sortzen den leialtasunean oinarritu behar da. Alde horretatik, erakundeak errespetatzen du bere langileek beste jarduera sozial, finantzario eta enpresarial batzuetan parte hartzea edo kargu publikoak izatea, baldin eta legezkoak badira, lehia desleialik eragiten ez badute, langileek HUHEZIn dituzten ardurekin talkarik egiten ez badute, eta haien independentzia eta dedikazio profesionala baldintzatzen ez badute. Zalantzazko egoeretan, langileak bere arduraduna informatu beharko du.

HUHEZIk badu Interes-gatazken prebentziorako politika bat.

5. Irudi eta ospe korporatiboaren gaineko erantzukizuna

Irudia eta ospea estuki lotuta daude HUHEZIko langileen, erakundeen eta oro har gizartearen arteko harremanarekin. Hori dela eta, HUHEZIko langile guztiek kontu handia izan behar dute beren jarduera profesionaletan irudi eta ospe korporatiboa zaintzeko.

Langileek HUHEZIren izen ona edo interesak kaltetu ditzakeen edozein jarduera saihestu behar dute, are erakundeek, erabiltzaileek, hornitzaileek eta enpresa kolaboratzaileek hura errespetatzen dutela zaindu ere.

Langileek, HUHEZIren izenean dihardutenean, kontu handiz jokatu behar dute, bereziki agerraldi publikoetan, eta beren arduradunari jakinarazi beharko diote hedabideen aurrean hitz egin, jardunaldi profesionaletan edo mintegietan parte hartu, eta orobat zabalkunde

publikoa duen edozein ekitalditan agertuko direla (ikus ere HUHEZI Koop. E.ko EESSn 15.Bat artikulua).

6. Eroskeriaren eta ustelkeriaren aurkako neurriak

HUHEZIko pertsonek ez dute inondik ere baliatuko praktika ez-etikorik hirugarrenen borondatearen eraginez erakundearentzako edo berentzako onurarik lortzeko.

Ezin da ordainketarik jaso, eskaini edo zuzenean edo zeharka eman, ez dirutan, ez jenerotan, ezta bestelako onura gisa, ez inongo entitateren –publiko zein pribatu– zerbitzura dauden pertsonei, ez alderdi politikoei, ezta kargu publikoen hautagaiei ere, negozioak edo bestelako abantaila batzuk legearen aurka lortzeko edo haiei eusteko.

HUHEZIko pertsonek aplikatzekoak diren legeen arabera jokatu behar dute, eta inondik ere ez dute erabiliko, ezta onartuko ere, hirugarrenek erakundearekin eta langileekin eroskeria baliatzea, edo alderantziz.

Opariak, gonbidapenak eta arreta erakundearen interes legitimoen karietara bakarrik jaso edo entregatuko dira, eta sozialki onargarriak izan behar dute, publikoki ezagutzera emanez gero deserosoak izan ez daitezen hartzaile edo igorleentzat.

Funtzionario eta politikariekin zalantzazko egoerarik sor ez dadin, gomendatzen da administrazio publikoarekiko bileretan akta jasotzea beti eta bileretara erakundeko lagun bat baino gehiago joatea. Jardueraren baten legezkotasunaren aurrean zalantzarik izanez gero, HUHEZIko arduradun juridikoarengana joko da, beharrezko neurriak har ditzan administrazio publikoarekiko kontratu guztiak aztertuko direla bermatzeko.

HUHEZIk badu Ustelkeriaren aurkako politika bat, Dirulaguntzen politika bat eta Erosketen politika bat.

7. Ekarpen politikoak, babesletza, eta fundazio eta erakundeetan parte hartzea

HUHEZIk ez du jarduera politikoetan parte hartzen, eta ez du izaera politikoko dohaintza ekonomikorik egiten. Hala eta guztiz ere, erakundeko edozein pertsonak du funtzio politikoetan parte hartzeko eskubidea, baldin eta beraren izenean jarduten badu, beraren denbora librean eta beraren baliabideak erabiliz. Pertsona horrek argi utzi behar du bere iritzi eta ekintzak bereak direla, pertsonalak, eta ez erakundearenak.

Babesletzak «HUHEZI» marka iragartzeko aukeraren kontraprestazio gisa egiten dira. Diruzko babesletzek gardenak izan behar dute, hau da, hartzailearen identitateak eta babesletzaren zioak eta helburuak justifikatuak eta dokumentatuak izan behar dute. Era berean, HUHEZIko langileek hirugarrenek antolaturiko ekitaldietan parte hartzearen bitartez ere egiten dira babesletzak.

Gainera, kulturaren eta hezkuntzaren esparruko fundazio eta elkarteetan parte hartzen da, gizarteko kide arduratsu eta eraldaketa sozialerako bokazioa duen erakunde bateko parte-hartzaile gisa, ingurunean eragin ona izateko. Babesletzak eta ekitaldi, fundazio eta elkarteetako parte-hartzeak ez dira egiten HUHEZIren irudia eta ospea kaltetu dezaketen lehia-abantailen edo bestelako helburu desegokien kontraprestazio gisa.

Arestian aipaturiko guztia Ustelkeriaren aurkako politikan jasota dago.

8. Informazio konfidentziala eta sekretu-betebeharra

Informazio konfidentzialtzat hartzen da honako hau:

- Esplizituki konfidentzialtzat jotako barne-informazioa eta hirugarrenek HUHEZIren esku konfidentzialtasun-itun baten pean utzitakoa.
- HUHEZIrekin loturiko langile, kooperatiba, hornitzaile eta gainerako hirugarren pertsonen datuak, HUHEZIk edo datuen jabeek publikoki zabaldu gabeak.
- HUHEZIren jarduerekin loturiko dokumentazioa, publikoki zabaldu gabea.

Langile guztiek dute beren jardueretan kudeatzen den informazio guztietan diskrezioa, sekretua eta konfidentzialtasuna gordetzeko betebeharra Datu Basesaren legeak ere jasotzen dituen alderdietan. Inongo langilek ez du informazio konfidentzialik zabalduko HUHEZIren baimenik gabe, ez kontratu-harremanak irauten duen bitartean, ez kontratua amaituta.

Datuen babesaren eremuan aplikatzekoa den legeria eta kasuan kasuko konfidentzialtasun-konpromisoak betetze aldera, HUHEZIk konpromisoa hartzen du erakundeko langileekin eta alderdi interesdunekin loturiko informazio guztia babesteko.

HUHEZIk badu Pribatutasun- eta konfidentzialtasun-politika bat eta Informazioaren segurtasun-politika bat.

9. Finantza-erregistroa eta -integritatea

HUHEZIren transakzio, egintza eta ekitaldi guztiak argi eta zehatz jaso behar dira erakundearen erregistroetan, aplikatzekoa den araudiari jarraituz.

Informazio horren transmisioak egiazkoa, osoa eta ulergarria izan behar du. Ez da emango informazio okerrik, zehaztugaberik edo jasotzen duenak gaizki ulertuko duenik.

Gure finantza-ikuskariekin eta informazioa eskatzen duten organo eskudun guztiekin besoz beso lankidetzan aritzeaz gain, Kontseilu Errektoreak ikuskapen bat egingo du aldian behin, finantza-informazioaren fidagarritasuna eta erakundearen erregistroen zehaztasuna bermatzeko.

IV. Kodea betetzea

1. Komunikazioa

Kode etikoa bide hauetatik komunikatuko da batik bat:

- Langile berrientzako Harrera Plana. Kontratuen eranskin gisa jasoko da kode etikoa, eta langileek espresuki onartu beharko dute lanean hasi aurretik.
- HUHEZIk urtero antolatzen dituen hitzaldi informatiboak. Kodean egindako aldaketak, betearazpen-baldintzak eta hobekuntzarako ekintzak jakinaraziko dira.

- Kolaboratzaile adituen eta hornitzaileen eskaera-orria. Orri horretan, kode etikoaren berri ematen da, eta kolaboratzaile eta hornitzaileek onartu egin beharko dute.

2. Kontratu-balioa

Langile guztiei eskatzen zaie kode etikoaren berri izatea eta hartan jasotako printzipioen arabera jokatzeko, eta baita kodea betearaztea eta, bestek betetzen ez badute, salatzea.

Bestalde, ahalegina egingo da kolaboratzaile adituek eta hornitzaileek ere bere egin ditzaten kode etikoaren printzipio eta edukiak. Kasu horretan, eskaera egiten duen pertsonak bermatuko du kolaboratzaile adituak edo hornitzaileak kode etikoaren berri izatea. HUHEZIk eskubidea izango du aditu kolaboratzaile adituen edo hornitzaileen edozein kontratu bertan behera uzteko, baldin eta kode etikoa betetzen ez badute.

3. Monitorizazioa

Kode etikoa bete dadin, Kontseilu Errektoreak batzorde betearazle bat izendatu du. Zaintza Batzorde kide batek, Kontseilu Errektoreko kide batek, Kontseilu Sozialeko kide batek, Lan Arriskuen Prebentziorako arduraduna, Finantza Zuzendariak eta Dekanoak osatzen dute batzordea, eta, besteak beste, honako betebehar hauek izango ditu:

- Kode etikoaren zabalkundea eta ezagutza sustatzea.
- Interpretazio-zalantzei erantzutea edo gatazka-egoerak saihestea, kode-urraketarik gerta ez dadin.
- Salaketak eta ez-betetzeak ikertzea eta kasuan kasuko ekintzak aurrera eramatea. Salbuespen izango dira sexu-jazarpenarekin loturiko kasuak, Sexu Jazarpenaren Aurkako Batzordearen esku geratuko baitira.
- Urtero informazioa biltzea kode etikoa betetzeari buruz (ikuskaritza edo lagin bidezko ebaluazioa, salaketak, arrisku-egoerak, etab.), eta, informazio hori oinarritzat hartuta, kode etikoa urtero berrikustea.
- Berrikuspenaren eta hobekuntzarako ekintzen emaitza langileei jakinaraztea HUHEZIren urteroko hitzaldi informatiboan.

4. Kanal etikoa: **etikabatzordea.huhezi@mondragon.edu**

Langile guztiek komunikaziorako bide bat izan dezaten, ohikoez gain bada barne-kanal konfidentzial bat, Batzorde Betearazleak kudeatua, langileek interpretazio-zalantzak planteatu, zalantzazko egoerak argitu, eta printzipio etikoen urraketak salatu ditzaten.

5. Zigorrak

Kode etiko honetan jasotako printzipio etikoren bat betetzen ez duten langileek zigorra jasoko dute, barne-araudian ezarritakoari jarraituz, eta, horrez gain, gerta daiteke arau-hausleak beste erantzukizun batzuk ere hartu behar izatea.

6. Indarraldia eta eguneratzea

Kode etiko hau indarrean egongo da azalean adierazitako onarpen-datatik aurrera.

Kode etikoa aplikatuko da langileek masiboki haren berri izan eta onartzean eta langile berriak lanean hastean (Harrera Planaren bidez emango zaie haren berri). Aditu kolaboratzaileen eta hornitzaileen kasuan, eskaera onartuz geroztik aplikatuko da.

Batzorde Betearazleak, aldaketen proposamenak aztertu, eta, urtean behin, kode etikoa berrikusiko du. Ondoren, kodea eguneratuko du, eta Kontseilu Errektoreak onartuko du. Langile guztiei emango zaie aldaketen berri, eta, gutxienez, urteroko hitzaldi informatiboan azalduko dira.